

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 20koa, Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Zuzendariarena, aldi baterako enplegua merezimendu-lehiaketaren bidez egonkortzeko hautaketa-oinarriak eta salbuespenezko deialdia onartu eta argitaratzen dituena.

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa den Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 11.1 eta 3.a) artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau

EBAZTEN DUT

- 1.- Merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko deialdia eta hautaketa onartzea eta iragartzea, Ebazpen honen oinarri orokorren (I eranskina) eta oinarri espezifikoen (II eranskina) arabera.
- 2.- Ebazpen honen II eranskinean jasotako lanpostuen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetarako deialdia egitea.
- 3.- Eskabidea aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 2tik 2023ko urtarrilaren 30eko 14:00ak arte ezartzea. Eskabideak ebazpen honen oinarri espezifikoetan (III eranskina) ezarritakoaren arabera aurkeztuko dira.
- 4.- Ebazpen hau Euskadiko Enplegu Publikoaren Atarian (www.euskadi.eus/enplegu publikoa-publikoa/) eta Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren webgunean (www.unibasq.eus) argitaratzea.
- 5.- Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diete Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarekiko auzien jurisdikzio-organoei, bi hilabeteko epean (ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita), hala ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. eta 46. artikuluetan. Halaber, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Agentziari, hilabeteko epean (ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita), adierazitako 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluei jarraikiz.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 20an.

IÑAKI HERAS SAIZARBITORIA

Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Zuzendaria

OINARRI OROKORRAK, UNIBASQ- EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAKO LAN-KONTRATUDUN FINKO IZATEKO HAUTAKETA-PROZESUA ARAUTZEN DUTENAK, ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN BIDEZ (MEREZIMENDU-LEHIAKETA).

1. XEDEA

1.1.- Oinarri hauen xedea da Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako langile lan-kontratudun finko izateko lanpostuak betetzeko arau orokorrak ezartzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren bidez, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak arautzen dituen abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarrian eta zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia (hemendik aurrera, Unibasq).

1.2.- Hautaketa-prozesuaren berezitasunak deialdiaren oinarri espezifikoean arautzen dira.

1.3.- Enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesua lehiaketa-sistemaren bidez gauzatuko da, bi lege hauetan jasotako aurreikuspenen babesean: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen bigarren xedapen gehigarrian, eta Administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriari buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan. Txanda ireki bakarria izango da, sarbide orokorreko modalitatekoa.

Lehiaketa-sisteman, prozesuan onartutakoek alegatutako merezimenduak aztertu eta baloratzen dira. Il eranskinean jasotako oinarri espezifikoean zehazten dira zer merezimendu baloratuko diren eta baloratzeko zer baremo erabiliko den. Esperientzia, titulazioak, hizkuntzak eta abar balora daitezke. Oinarri espezifikoean ezarritako baremoaren arabera baloratuko ditu merezimenduak epaimahaiak

Zabalkunde publikoari begira, deialdia Euskadiko enplegu publikoaren atarian (<https://www.euskadi.eus/enplegu-publikoa/>); zehazki, “Beste administrazio batzuk eta sektore publikoa” atalean) eta Agentziaren webgunean (<https://www.unibasq.eus/eu/>) argitaratzen da.

2. HAUTAKETAKO ARAU OROKORRAK

Deialdia eta oinarriak lotesleak dira deialdia egin duen erakundearentzat, lehiaketa epaitu behar duen epaimahaiarentzat eta lehiaketan parte hartzen dutenentzat. Arau hauetan jasotzen ez den guztirako, aplikatzekoa den arau-xedapenetan jasotakoa aplikatuko da.

3. ENPLEGU-HARREMANAREN IZAERA JURIDIKOA

Merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez lanpostu hutsak lortzen dituzten izangaien izaera juridikoa lan-kontratukoa izango da.

4. LAN-BALDINTZAK

Xedapen honetan ezarritako prozeduraren bidez lanpostu bat hautatu eta betetzen duten langileei Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua, Langileen Estatutua eta horien ondoriozko garapen-arauak eta Unibasqen indarrean dagoen enpresa-akordioa aplikatuko zaizkie.

5. IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

5.1.- Parte hartzeko betekizun orokorrak

Iragarritako hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Europar Batasuneko kide den edozein estatutako nazionalitatea edukitzea. Parte hartzeko aukera izango dute, halaber, Europar Batasunaren estatu kideetako herritarren ezkontideek, edozein dutela ere nazionalitatea eta, betiere, zuzenbidez bananduta ez badaude, haien ondorengoek eta, zuzenbidez bananduta ez badaude, ezkontidearenek, baldin eta hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Era berean, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan dauden pertsonak ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta tratatu horietan langileen zirkulazio askea aplikatzen bada.

Halaber, aurreko paragrafoetan aipatu ez arren, legezko bizilekua Espainian daukaten atzerritarrek ere parte hartu ahal izango dute.

b) Gaitasun funtzionala izatea, sartu nahi den kategoriako zereginak betetzeko.

c) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiro-adina beteta ez izatea.

d) Diziplina-espediente batez edozein administrazio publikotako edo autonomia-erkidegotako organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea; ezta, ebazpen judicial baten ondorioz, enplegu edo kargu publikoetarako desgaiakuntza absolutua edo berezia izatea ere, bereizi edo desgaitu duten funtzionario-kidegoan edo eskalan sartzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, izangaia ezin izango da desgaiakuntza-egoeran edo egoera baliokideren batean egon, eta ezin izango du ezarrita izan diziplina-zehapenik edo baliokiderik, bere estatuan, baldintza beretan, enplegu publikorako sarbidea eragozten dionik.

e) Oinarri espezifikoetan eskatutako titulazioa izatea edo titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazioak atzerrikoak badira, haien homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

f) Indarrean dagoen araubidearen arabera, ezintasuneko edo bateraezintasuneko legekausaren batean sarturik ez egotea; hala ere, araudiak ematen duen aukera-eskubidea errespetatuko da.

g) Langileak hautatzeko deialdietako inskripzio-tasa ordainduta izatea, zeina parte hartu nahi den prozesuaren eta lanpostuari dagokiona izango baita eta zeinaren diru-zenbatekoa oinarri espezifikoetan zehaztuko baita.

h) Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein betekizun.

5.2.- Parte hartzeko betekizun espezifikoak

Betekizun hauek oinarri espezifikoetan zehaztuko dira. Betekizun espezifikoak baztertzailak izango dira, kasu guztietan.

5.3.- Merezimenduak eta parte hartzeko betekizunak betetzeko erreferentzia-datak.

Alegatzen diren merezimenduen jabe izateko eta betekizunak betetzeko erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea bukatzen denekoa izango da.

6. ESKABIDEAK AURKEZTEA

6.1.- Prozesuan onartua izatea

Parte hartu nahi dutenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 1) Eskabidearen atal guztiak betetzea.
- 2) Epe barruan aurkeztea
- 3) Langileak hautatzeko deialdietan inskribatzeagatik ezarritako tasak ordaintzea.

6.2.- Eskabideak aurkezteko epea eta langileak hautatzeko deialdietan inskribatzeagatik ezarritako tasa ordaintzea

Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 2tik 2023ko urtarrilaren 30eko 14:00ak arte izango da.

23,49 euroko tasa ordaindu beharko da deialdian izena emateko.

6.3.- Eskabideak aurkezteko modua

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaerak prozesuaren oinarri espezifikoetan zehazten da.

Prozesuan onartua izateko, dagokion eskabidea behar den epean eta moduan bete beharko da.

6.4.- Eskabideen edukia

Izangaiek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera, betiere aurreikusitako epearen barruan:

- 1) 1. dokumentua. Eskabidea: eskaera-orria, zeinean izangaiek adieraziko baitu betetzen dituela deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintza guztiak (eskaera-eredua oinarri espezifikoetan zehazten da).

- 2) NANaren edo agiri baliokidearen fotokopia.
- 3) Deialdian parte hartzeko eskatu den titulu ofizialaren kopia.
 - Titulazio akademiko ofizialaren kopia.
 - Euskararen hizkuntza-eskakizunaren titulu ofizialaren kopia.
- 4) Lortu nahi den lanpostuan emandako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria, deialdiaren oinarri espezifikoetan jasotakoaren arabera.
- 5) Beste merezimendu batzuen egiaztagiriak, deialdiaren oinarri espezifikoetan jasotakoaren arabera:
 - Beste hizkuntza batzuen titulu ofizialaren kopia.
 - Oinarri espezifikoetan zehaztutakoaren arabera merezimendu gisa balora daitezkeen beste titulazio ofizial batzuen kopia.
 - Gainerako merezimendu baloragarriei dagozkien ziurtagirien kopia.
- 6) Dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztagiria, 6.5 puntuan zehaztutakoaren arabera.

6.5.- Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasak ordaintzeko modua

Zenbatekoa Kutxabank kontuaren bidez sartuko da: ES76 2095 0611 0210 9096 3470. Kontu horren titularra Unibasq da, eta lehiatzen den plazaren izena eta lehiaketara aurkezten den pertsonarena adieraziko dira.

6.6. Langileak hautatzeko deialdietan inskribatzeagatik ezarritako tasak eskabideak aurkezteko epean ordaintzen ez dituen prozesutik kanpo geratuko da. Nolanahi ere, ordaindutako zenbatekoan akatsen bat baldin badago, 10 egun balioduneko epea emango zaio izangaiari akatsa zuzen dezan.

Langileak hautatzeko deialdietan inskribatzeagatik ezarritako tasa ordaintzea ez da nahikoa izango prozesuan parte hartzeko: eskabidea behar bezala eta emandako epearen barruan aurkeztu behar da, oinarri hauetako aurreko ataletan adierazitakoari jarraituz.

Eskaera aurkezteak esan nahi du berariaz onartzen direla deialdi honen oinarriak.

Eskabidean agertzen den helbidea izango da jakinarazpenak egiteko balioko duen bakarra. Eskabidean helbide elektronikoa edo mugikor baten telefono-zenbaki bat ematen duten parte-hartzaileek baimena ematen dute Unibasqek prozesuan zehar egin ditzakeen komunikazioetarako erabiltzeko. Eskatzailearen erantzukizuna izango da osorik, helbidea, helbide elektronikoa eta telefono-zenbakia oker idatzi edo ematea, bai eta Unibasq agentziari haien edozein aldaketa jakinaraztea ere.

7. ESKABIDEAK EGIAZTATZEA

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratuko da.

Prozeduran onartuak izateko funtsezko baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak zuzentzeko 10 egun balioduneko epea ezarriko da, onartuen eta ez onartuen behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik aurrera.

Onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda Unibasqen webgunean argitaratuko da (www.unibasq.eus).

8. AZKEN KALIFIKAZIOA

8.1.– Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa merezimenduen balorazioan eta euskararen ezagutzan lortutako puntuazioen batura izango da, oinarri espezifikoetan zehazten diren kasuetan eta baldintzetan.

8.2. – Lehentasun-klausula. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, gaikuntza bera izanez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna, emakumeen ordezkari % 40tik beherakoa den kategorietan. Salbuespena izango da beste izangaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak izatea –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuagatiko diskriminaziorik–; esate baterako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea. Ondorio horietarako, gaikuntzari dagokionez izangaien arteko berdinketa dagoela joko da, baldin eta puntu-berdinketa badago hautaketa-prozesuaren azken puntuazioan, hau da, merezimenduak gehitu ondoren. Deialdiaren oinarri espezifikoetan zehaztuko da artikulua horretan xedatutakoa aplikatuko den ala ez, dagokion kategorian emakumeek duten ordezkariaren arabera.

8.3.– Berdinketa hausteko irizpideak. Berdinketarik egonez gero, irizpide hauek bata bestearen ondoren aplikatuz ezarriko da hurrenkera:

- Esperientzia espezifiko gisa baloratzeko moduko esperientzia-egun gehien duenaren alde.

- Esperientzia orokor gisa baloratzeko moduko esperientzia-egun gehien duenaren alde.

9. IZANGAIEN ZERRENDA, PUNTUAZIOAREN ARABERA

Merezimenduen balorazioa egin ondoren, epaimahaiak izangai guztien behin-behineko zerrenda egingo du, puntuazioaren arabera, baloratutako atal bakoitzean lortutako puntuazioekin eta prozesuko ordena-zenbakiarekin. Zerrenda hori Unibasqen webgunean argitaratuko da (www.unibasq.eus). Puntuazioak Unibasqen webgune horretan argitaratuko dira, lortutako puntuazioaren arabera, izen-abizenak adierazita, eta nortasun-agiri nazionalaren, atzerriarraren nortasun-zenbakiaren, pasaportearen edo agiri baliokidearen zorizko lau zifra erantsita. Argitaratzeaz gain, aipatutako zerrendan agertzen diren pertsonen SMS edo posta elektronikoko bidez jasoko dute abisua, betiere telefono mugikorraren zenbaki bat edo helbide elektronikoko bat eman badute.

Merezimenduen behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren, izangaiak zazpi (7) egun balioduneko epea izango dute egoki iriztitako alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko epaimahaiaren aurrean. Horiek ebazteko, puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratuko da,

baloratutako atal bakoitzean lortutako puntuazioekin eta prozesuko ordena-zenbakiarekin, eta behin betiko zerrenda hori argitaratuko da, behin-behineko zerrenda argitaratu eta izangaiei jakinarazteko ezaugarri bereberekin.

10. EPAIMAHAIA

Unibasqen Zuzendariak horretarako izendatutako epaimahai batek ebaluatuko du prozedura, Unibasqen webgunean (www.unibasq.eus) argitaratuko den ebazpen baten bidez. Onartutako hautagaiek SMS bidez edo posta elektronikoz jasoko dute argitalpen horren berri, betiere telefono mugikorraren zenbaki bat edo helbide elektronikoa eman badute.

Epaimahaia nagusiki teknikoa izango da, eta, hura osatzeko, aintzat hartuko dira espezialitate-, inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak eta emakumeen eta gizonen berdintasuna. Kasu guztietan honako hauetan xedatutakoa beteko da: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikulua (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina) eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikulua.

Epaimahaiak kide kopuru bakoitia izango du; horietako bat epaimahaiburu izango da, eta besteak epaimahaikide. Kideetako bat idazkari izendatuko da. Epaimahaia osatzen duten guztiek ordezkoa izango dute.

Izendapenak egiteko garaian, kideen egokitasuna eta kualifikazioa bermatuko dira.

Epaimahaiak aholkulari espezialistak izenda ditzake eginbeharretan laguntzeko. Aholkulari espezialista horiek hitza izango dute, baina botorik ez, eta beren lan bakarra izango da epaimahaiari laguntzea espezialitate teknikoetan.

Hautaketa-organoko kideek uko egin beharko diote parte hartzeari, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako egoeraren batean ikusten badute beren burua. Egoera berberetan, interesdunek errekusazioa bultzatu ahal izango dute, aipatutako lege-testu horren 24. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura bitartean ezarritako arauen arabera jardun beharko du epaimahaiak.

11. LAN-POLTSAK SORTZEA ETA LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZAK

11.1.- Lan-poltsak

Epaimahaiak zerrenda-proposamena egingo die lortutako puntuazioak batu ondoren guztirako puntuazio handiena lortzen duten izangai hauei, aldi baterako beharretarako lan-poltsa sortzeko.

Lanpostu bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehazten den gutxieneko puntuazioa lortzen duten langileek osatuko dute lanpostu bakoitzari dagokion lan-poltsa.

11.2.- Lanpostuak esleitzeko baldintzak

Epaimahaiak ezin izango du deitutako plaza-kopurua baino gainditu-kopuru handiagoa proposatu lan-kontratuak egiteko, kasu hauetan izan ezik:

a) Egoera hauetako bat gertatzen bada:

– Hautatutako pertsonak uko egitea, kontratua sinatu aurretik, edo

– Izangaiek eskatzen zaien dokumentazioa ez aurkeztea 12. oinarrian xedatutakoaren arabera, edo aurkeztutakotik ondorioztatzen bada 5. oinarrian eskatutako betekizunen bat betetzen ez dutela, edo ez badute zereginak betetzeko eskatzen den gaitasun fisikoa edo psikikoa.

b) Kontratua sinatzeko unean lanpostua gorde gabeko eszedentzia eskatzen bada, horrela hutsik geratu diren lanpostuak esleitu egingo dira.

c) Deialdi honetako plazak esleitu eta urtebeteko epean deialdiko lanposturen bat hutsik geratzen bada.

Kasu horietan, lan-poltsako langileei dei egingo zaie lan-kontratu finkoko lanpostu hutsa betetzeko, lehentasun-ordena zorrotzean. Nolanahi ere, kontuan hartuko da deialdi honetarako egiaztatutako sarbide-baldintzak betetzen direla, ez geroagokoak, bai egiaztatutako esperientziari dagokionez, bai gainerako betekizun edo merezimenduei dagokienez. Lan-poltsaren lehentasun-hurrenkera ez da aldatuko argitaratu eta lehenengo urtean.

11.3.- Hautatutakoen zerrenda

Lanpostuak aukeratzeko epea amaitutakoan, hautatutako pertsonen eta esleituko diren lanpostuen behin-behineko zerrenda egingo da, kontuan hartuta eskatutako betekizunak betetzen diren, izangai bakoitzak zer puntuazio-ordena duen eta zer lehentasun adierazi dituen.

Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak ezin izango dituzte inola ere bete deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan aurreikusitako moduan eskakizun hori egiaztatu ez duten izangaiek.

Hautatutako pertsonen behin-behineko zerrenda hori 9. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko da, eta, ebazpen horretan, 10 egun balioduneko epea ezarriko da, izangaiek eskatutako lanpostuen betekizun espezifikoen gainean zuzenketak egiteko eta erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta horiek ebatzi ondoren, hautatutako pertsonen eta esleitutako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratuko dira 9. oinarrian adierazitako lekuetan.

12. HAUTAPROBAK AMAITZEAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Interesdunei jakinaraziko zaie zer izangai hautatu diren, eta pertsona horiek Unibasqen aurkeztu beharko dituzte 6.4 puntuan jasota dauden parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak, kontratua sinatu baino 10 egun baliodun lehenago.

Horretarako, aurretik adierazitako dokumentazio guztiaren jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak aurkeztu behar dituzte:

- Curriculumean adierazitako prestakuntza akademikoa egiaztatzen duten titulu, ziurtagiri edo diplomen kopia autentifikatua edo ziurtagirien kopia, konpultsa egin ahal izateko edo halakoak eskuratzeko tasak ordaindu izanaren frogagiria.

Atzerriko tituluak dituzten izangaiek baliozkotzearen edo homologazioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

Araututako lanbideen eremuko lanbide-kualifikazioa Europar Batasuneko Zuzenbideko xedapenekin bat aitortua dutenek agiri bidez egiaztatu behar dute egoera hori.

- Hizkuntzen ziurtagirien kopia autentifikatua edo fotokopia, konpultsatzeko.

- Zinpeko deklarazioa edo hitzematea, non izangaia adieraziko baitu ez dagoela diziplinazko espediente baten bidez bereizita administrazio publikoen edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutupekoen zerbitzutik, eta ez duela ezarrita ebazpen judizial baten bidez enplegu edo kargu publikorako erabateko desgaitasunik edo desgaitasun berezirik. Halaber, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, adierazteko ez daudela nahasita desgaitasuneko edo bateraezintasuneko legezko ezein kausatan. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esateko beren estatuan ez daudela desgaituta edo egoera baliokide batean eta ez dutela ezarrita enplegu publikorako sarbidea eragozten duen diziplina-zehapenik edo neurri baliokiderik.

Betekizun hori egiaztatzeko, eredu normalizatu bat jarriko da izangai hautatuen eskura.

- Esleitutako lanpostuan aritzeko eskatu diren bestelako baldintza espezifikoaren jatorrizko egiaztagiria edo fotokopiak gero konpultsatzeko, hala badagokio.

Eskatutako dokumentazioa adierazitako epean aurkezten ez duten izangaia prozesutik kanpo geratuko dira, eta Unibasqek gai kalifikatu den hurrengo izangaia kontratatu ahal izango du, betiere prozeduraren amaierako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz.

13. DATUEN BABESA

Interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Unibasqek tratatuko dituela (helbidea: San Prudencio Kalea, 8, 01005 Vitoria-Gasteiz). «HAUTAKETA-PROZESUAK» tratamenduaren helburua da lanpostuak betetzeko langile-hautaketaren prozedurak egitea, tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen arabera (Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea eta Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua). Datuak zertarako bildu ziren, helburu hori betetzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira datuak, bai eta helburu horren ondorioz eta datuen tratamenduaren ondorioz sor litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran ere. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak hala behartu ezean. Datuetan sartzeko, datuak zuzendu eta ezabatzeko eta haien tratamendua mugatzeko edo tratamenduaren aurka egiteko eskubidea du interesdunak. Horretarako, idatzizko komunikazio bat bidali beharko dio tratamendua, eskubideak gauzatzeko prozeduraren bidez.

Halaber, eskubidea duzu erreklamazioak Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkezteko, eta aukera duzu, baita ere, aurretik erreklamazioa jartzeko datuak babesteko ordezkariari. Web-orri honetan duzu informazio gehiago: <https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/>

Parte hartzeko eskabidean, izangaiek berariazko baimena eman beharko dute beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzea onartzeko, 14. oinarrian aurreikusitako ondorioetarako. Datuen lagapen horren helburu bakarra da beste administrazio publiko batzuetatik lan-eskaintzak jaso ahal izatea, legez aurreikusitako baldintzetan. Izangaiaren onarpena berariaz jaso ezean, lagapenaren aurka dagoela ulertuko da.

14. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARTEKO LANKIDETZA

Unibasqek, aurreko oinarrian xedatutakoaren arabera, EAeko beste administrazio edo erakunde publiko batzuen esku jar dezake lan-poltsan sartu diren izangaien zerrenda, baldin eta administrazio edo erakunde horiek hala eskatzen badute eta izangaiek 13. oinarrian aipatutako esanbidezko adostasuna eman badute. Edonola ere, eskaerei benetan erantzuteko, bi baldintza hauek hartuko dira kontuan: lan-poltsako kideen prestasuna eta Unibasqen pertsonal-beharrak.

II eranskina

OINARRI ESPEZIFIKOAK, UNIBASQ – EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAKO EBALUAZIO TEKNIKARI POSTUETAN LANGILE LAN-KONTRATUDUN FINKO IZATEKO HAUTAKETA-PROZESUA ARAUTZEN DUTENAK, ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN BIDEZ (MEREZIMENDU-LEHIAKETA)

1.– Deitutako plazak

Ebaluazio teknikarien 2 plaza txanda irekian betetzeko deialdia egiten da, honela banatuta:

- Sarbide orokorreko modalitatea: 2
- 3. Hizkuntza Eskakizuna eskatzen dutenak: 2

Ebaluazio-teknikariaren lanpostuen helburu orokorra: unibertsitateen kanpo kalitate-ziurtapenaren baitan ebaluazio-txostenak egiteko aholkularitza teknikoa. Honako hauek dira aurreikusitako eginkizun orokorrak:

- Txosten teknikoak egitea.
- Protokoloak, hitzarmenak eta gidak idaztea eta ebaluazioetarako txantiloak egitea.
- Ebaluazioen inguruan unibertsitateekin harremanetan jartzea eta aholkularitza eskaintzea.
- Nazioartekotze-programetarako dokumentazioa prestatzea.
- Programen metaebaluazioak egitea.
- Ebaluazio-prozesuen kudeaketa-lanetan laguntzea, helarazten zaizkien jarraibideen arabera.
- Ebaluatzaileek edo ebaluatu beharreko zentroek edo pertsonak planteatutako gaiak ebaztea.
- Ebaluatzaileei aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzea, lan-dokumentuak prestatuz.
- Ebaluazio-programa eta -prozesuei buruz planteatutako kexa, iradokizun eta kontsultei erantzutea.
- Ebaluazio-prozesuen koordinazio- eta kudeaketa-lanak egiten dituzten pertsonen beren eginkizunak betetzen laguntzea.
- Dokumentazioa prestatzea eta informazioa tratatzea, ondoren webgunean argitaratzeko.

2. Eskabideak aurkeztea

Oinarri hauek Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren webgunean (www.unibasq.eus) eta Euskadiko Enplegu Publikoaren Atarian (www.euskadi.eus/enplegu publikoa-publikoa/) daude eskuragarri.

2.1.- Aurkezteko epea

Eskabideak 2023ko urtarrilaren 2tik 2023ko urtarrilaren 30eko 14:00ak arte aurkeztu ahal izango dira.

2.2. Aurkezteko modua

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari bakarrik aurkeztuko zaio, ebazpen honen III. eranskina erabiliz formalizatutako eskabidea erregistratuz, bai Unibasqen erregistroan (San Prudentzio kalea, 8, 01005 Vitoria-Gasteiz), bai PDF gisa erantsiz, behin eskaneatu eta sinadura digital ziurtatuarekin sinatu ondoren, naiara.martinez@unibasq.eus helbidera bidalitako mezu batean. Eskabidearekin batera, oinarri orokorren 6.4 puntuan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko duite izangaiek erregistroan edo posta elektronikoz bidali beharko duite (bidalitako postak 10 MB baino gehiago hartzen baditu, mezu bat baino gehiago bidaliko dira, horietako bakoitzean baimendutako gehienekoa gainditu gabe).

3.– Parte hartzeko betekizunak

3.1. – Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 5.1 atalean ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

3.2. – Deialdi honetako prozesuan izena emateko tasa 23,49 eurokoa da.

3.3. – Oinarri orokorretako 5.1.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, oinarri hauen xede diren lanpostuetan sartzeko eskatzen diren titulazioak honako hauek dira: Graduak edo Lizentziaturako Unibertsitate-titulu ofiziala.

4.- Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak

4.1. – Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna lanpostua betetzeko betekizuna da.

5.– Hautaketa-prozesua

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta gehienez ere 100 puntu lor daitezke.

Prozesuaren kalifikazioa honako baremo honen arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du:

a) Esperientzia orokorra

Unibertsitateen kalitate-ziurtapen ebaluazio teknikari edo arduradun lanpostuak betetzeagatik esperientzia orokorra, esperientzia orokortzat hartzen delarik edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak –barnean direla Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, lanpostu bakoitzari dagokion eranskinean zehaztutakoaren arabera.

Esperientzia horri 0,125 puntu emango zaizkio lan egindako hilabete bakoitzeko, 15 puntuko gehienezko zenbatekoarekin.

Zenbaketa egiteko, eskatutako betekizunak betetzen dituzten azken 10 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoak

Berriaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik berezita eta haren osagarri, ondorengo zerbitzu hauek baloratuko dira:

- Unibertsitate kalitate-agentzietako ebaluazio-teknikari edo -arduradun lanpostuetan.

Esperientzia horri 0,375 puntu emango zaizkio lan egindako hilabete bakoitzeko, 45 puntuko gehienezko zenbatekoarekin.

Zenbaketa egiteko, eskatutako betekizunak betetzen dituzten azken 10 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Unibertsitate-tituluak

Ondorengo unibertsitate-titulu hauengatik gehienez 20 puntu emango dira:

- Gehienez ere 7 puntu, guztira, unibertsitateen kanpo kalitate-ziurtapenari buruzko Unibertsitate-masterreko titulu bat edo batzuk egiaztatzeagatik.
- Gehienez ere 5 puntu, guztira, unibertsitateen kanpo kalitate-ziurtapenari buruzko Etengabeko Prestakuntzako Master titulu bat edo batzuk edo dagokien baliokideak egiaztatzeagatik.
- Gehienez ere 3 puntu, guztira, unibertsitateen kanpo kalitate-ziurtapenari buruzko Espezializazio-diploma titulu bat edo dagokien baliokideak egiaztatzeagatik.
- Gehienez ere 2 puntu, guztira, unibertsitateen kanpo kalitate-ziurtapenari buruzko Aditu-diplomaren titulu bat edo batzuk edo dagokien baliokideak egiaztatzeagatik.
- Gehienez puntu 1, guztira, unibertsitateen kanpo kalitate-ziurtapenari buruzko mikrokredentzial bat edo mikromodulu bat edo batzuk edo dagokien baliokideak edo egiaztatzeagatik.

Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuak araututako unibertsitateen berezko irakaskuntzen eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko unibertsitateek emandakoak izan ala ez, merezimendu gisa aurkeztutako unibertsitate-titulazioen arteko baliokidetasuna ebaluatzeko, aipatutako Errege Dekretuaren 37. artikuluan adierazitako erreferentziako kreditu-zenbatekoak erabiliko dira. Beste titulazio batzuetan integratzen diren titulazioak eta/edo ziurtagiriak (adibidez, Etengabeko Prestakuntzako Masterretan integratzen diren mikromoduluak) edo beste titulazio batzuetan aintzatesten direnak ez dira kontuan hartuko merezimenduen balorazioan bikoiztasunak saihesteko, eta balorazio handiena jasoko lukeen titulazioa besterik ez da hartuko meritu gisa.

d) Bestelako prestakuntza eta gaikuntza

Gehienez ere 10 puntu emango dira unibertsitateen kalitate-ziurtapenaren prestakuntzagatik. Balorazioa honela egingo da:

- 1,5 puntu, gehienez, 500 orduetik gorako berriazko prestakuntza-ikastaro bat egiaztatzeagatik.

- Puntu 1, gehienez, 350 eta 500 ordu arteko prestakuntza-ikastaro espezifikoko bat egiaztatzeagatik.
- 0,5 puntura arte, 175 eta 349 ordu arteko berariazko prestakuntza-ikastaro bat egiaztatzeagatik.
- 0,25 puntura arte, 174 ordu baino gutxiagoko berariazko prestakuntza-ikastaro bat egiaztatzeagatik.

e) Informatika-ezagutzak

Gehienez 5 punturekin baloratuko dira, programa hauei buruzko ziurtagiri bakoitzeko puntu 1:

- Outlook
- Word
- Excel
- Powerpoint
- Internet
- Access

Informatika-ezagutzak IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko dira, eta merezimenduak alegatzeko epean alegatu beharko dira.

Ziurtagiriak edozein bertsiotakoak eta maila desberdinetakoak izan daitezke. Alabaina, programa beraren bertsio eta maila desberdinak egiaztatzen badira, horietako bat bakarrik baloratuko da.

f) Hizkuntzak

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, gehienez ere 5 punturekin, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

6. – Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, ez da aplikatuko artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, ez baitago emakumeen azpiordezkaritzarik Unibasqeko ebaluazio-teknikariaren lanpostuetan, eta beraz ez zaie lehentasunik emango.

7.- Lan-poltsak

Hauek osatuko dute lan-poltsa:

6.a. Prozesu osoan gutxienez 20 puntu lortzen dituzten eskatzaileek.

6.b. Esperientzia espezifikoaren atalean gutxienez 5 puntu lortzen dituzten eskatzaileek.

6.c. Unibasqen lanpostu bakoitzari dagozkion aurreko prozesuetako lan-poltsako langileek; horrenbestez, prozesu horretatik ateratzen den lan-poltsak aurrekoa ordeztuko du. Aurreko prozesuetako lan-poltsan dauden langileak lan-poltsa hau osatuko duten langileen atzetik geratuko dira, zero punturekin. Lan-poltsak 5 urteko iraupena izango du, argitaratzen denetik hasita.

6. Honekin batera doazen agiriak, jatorrizkoak edo haien kopia konpultsatuak:

- NANA
- Plaza eskuratu ahal izateko eskatutako titulua
- Tasak ordaindu izanaren ordainagiria
- Hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria edo titulua
- Merezimendu gisa balora daitezkeen tituluak
- Lanbide esperientziaren egiaztagiriak
- Administrazio publikoaren ziurtagiria
- Erakunde pribatuaren ziurtagiria
- Lan kontratuak eta luzapenak
- Lan bizitza
- Beste agiri batzuk (zehaztu)

Behean sinatzen duenak hautaketa prozesuan onartzea eskatzen du, eta eskaeran agertzen diren datuak egiazkoak direla eta deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela aitortzen du. Horrez gainera, eskatzen dizkiotenean, jatorrizko agiriak aurkeztuko dituela adierazten du.

Bestalde, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, hauxe adierazten du:

— Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren 13. artikulua eta Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua eskatutako baldintzak jakinarazi dizkiote.

— Eskaeran jasotzen diren datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen du, aldizkari ofizialetan, iragarki taulan, web orrian, eta oro har, hautaketa prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein baliabidetan argitara daitezen, bai eta, oro har, epaimahaiak hautaketa prozesua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak dituen datuak tratatzeko ere.

— Baimena ematen du bere datu pertsonalak eta hizkuntza eskakizunen edo baliokideen egiaztagiriei buruzko datuak IVAPi lagatzeko, alegatutako egiaztagiriari buruzko datuak egiazta ditzan hizkuntza eskakizunen egiaztagirien erregistroan.

Data eta sinadura.